



Hizkuntzen irakaskuntza ume etorkinei

Europar sortzen ari diren gizarte berrietan elkarren arteko identitate zeinuak onartu eta gizarte kulturantzean bizitzeko oinarritzko baloreak adostu beharko ditugu. **Uri Ruiz Bikandi**. Gipuzkoako SOS Arrazakeria. 2002ko ekaina.

Sarrera

Hizkuntzaren irakaskuntzaz mintzatzen hasi baino lehen, agian etorkizunerako zein gizarte nahi dugun zirriboratu beharko genuke. Izan ere, denon lana da nora joan nahi dugun pentsatzea -nahiz eta gero, agian, kontrolatzen ez ditugun podere eta indarrek nahi ez dugun lekura eramango gaituzten - baina giza talde guztion zeregina da nahi dugun gizarte mota marraztea: giza taldeok arkipelago gisara dauzkana ala batasunaren bila joanez elkarren arteko komunak izan daitezkeen jokabideak eta identitate ikurrak bilatzen dituen. Horra koska.

Lan hau egin gabe dago, ez bakarrik gure artean, Europar ere bai: gaia aspaldidanik dago Parlamentuan planteatuta, baina honek ez dio oraindik heldu, gai konplexua baita, benetan.

Izan ere, migrazioen fenomenoak, gaur dituen ezaugarri eta bizitasunarekin, berri da denontzat. Zer egin beraren aurrean? Bide oso diferenteak saiatu dira Europar eta ez dirudi batek ere integrazio problema soluzionatzeko gai izan denik. Dударik ez dagoena da gizarte integratuak, demokratikoak, orekatuak nahi baditugu, munduko parte handi baten pobrezia kausetara joz gain, Europar sortzen ari diren gizarte berrietan elkarren arteko identitate zeinuak onartu eta gizarte kulturantzean bizitzeko oinarritzko baloreak adostu beharko ditugula. Frantziak ez du lortu magrebtar eta Amerikatik etorritako beltzak "frantsez hutsak" egitea, Alemanian gelditu dira printzipioz etxera bueltatzeko pentsatuak ziren eta alemaniar gisara tratatuak eta heziak izan ez diren etorkinak, Ingalaterrak harreman eskaseko bi edo hiru gizarte ditu elkarren ondoan bizi izaten. Problema mahai gainean dago eta handituz doa.

Gure sindikatua soziopolitikoak izanik, gizartean horrenbeste transzendentzia izan dezakeen fenomenoari irteera bilatzeko konpromiso serioa dauka. Egia esan, etorkinez hitz egingo ez bagenu ere, berdin-berdin beharko genuke gai honetaz mintzatu: Europar zein leku nahi eta zein izango dugun, nolako harremanak nahi ditugun auzokideekin, zelakoak gure artekoak. Barrutik begiratuta, gure sindikatuaren orain arteko praktika –



gora behera batzuk tartean, noski- herriaren batasuna bilatzearen aldekoa izan da, Euskal Herria bi komunitate banaturik nahi izango gintuzketenen kontra, gure gizartearen ezaugarri linguistiko eta kultural baterakoiak bilatu ditugu. Euskararen alde egin dugu hizkuntza minorizatua denona bihurtu nahian, herri bat izan nahi baitugu, kulturalki eta ez jatorriz definitua. Datozen etorkinen zenbait marka kultural gureekin urtuko dira seguruenez, baina horretarako urteak beharko dira, sinkretismo kulturala ez baita egun batetik bestera sortzen ezta dekretuz egiten, urteetako arragoa behar baitu. Baina ez dugu ahaztu behar bitartean, egunero joaten garela eskolara, egunerokoari erantzunez etorkizuneko perspektiba baten edo bestean ari garela jokatzeko nahi eta nahi ez: zenbat eta argiago izango dugun nora joan nahi dugun, hobeto jokatu ahal izango dugula.

Hau fondoko problema da eta nahiz eta momentuz sakoneko eztabaida hau albo baten utzi beharko dugun, ondoren datorren hizkuntzaren irakaskuntzari buruzko eztabaidak eni honetan zer eratako gizartea egin nahi dugun du azpi-azpiko galdera.

"Etorkinak eskolan" gaiaren problematikaz munduan bibliografia asko dago. Ameriketako da publikazio kopuru handiena, Kanada eta Estatu Batuetakoa, logikoa denez. Lanotan, normalean, ikasle horiek sozializatzeko eta hizkuntza ikasteko duten problematika, jokamolde kulturalen arteko gatazka edota eskolako ikaskuntzak aurrera eramateko ume etorkinek izaten dituzten oztopoak analizatzen dira oro har.

Problematika horretan erro soziokultural eta ekonomikoak nagusiak dira. Umeak maila soziokultural ertaineko jendearen seme-alabak direnean —Mu da, jende eskolatuaren seme-alabak-, problemak ez dira grabeak izaten, hizkuntza eta kultura berri bat ikasteari lotutakoak batik bat, baina bazterketa soziala dagoen kasuetan, talde minorizatuak kontua denean, orduan hizkuntza berri batez ikastea baino gehiago da gertatzen dena. Bigarren hizkuntzen irakaskuntzaz ikertu dutenek argi daukate problematika soziokulturala dela giltza.

Gure aldetik, hain problematika ñabarra izanik, hain esperientzi gutxi edukita, hain fenomeno zabala dela ikusiz, dudak eta jakineza ditugu nagusi. Irtenbidea ez dugu argi ikusten, izan ere, ate asko posible baitira. Sumatzen dut lehen urteetan jokabide ugari asmatu eta saiatu beharko ditugula, onenak aukeratu arte. Bitartean, beste leku batzuetan inmigratioari lotutako umeen eskolaratze problemak aztertu dituztenek zer dioten entzun beharko dugu, gure esperientziarekin kontrajarri, elkarren alean hausnartu eta gure irtenbidea bilatu.



Gure sindikatua, ezkerreko sindikatua izanik –sozio-politikoa-, definizioz interesatuta dago herri xehearen seme-alaben etorkizun duina bideratzen. Aldi berean, konpromiso sendoa dauka euskararekin, herri honen parte baten hizkuntza izan den', denona bihur dadin posible egiteko ahaleginetan sartua da aspaldidanik. Eskolaren zeregin honek artikulazio sozialaren alde jokatzeko du, gizarte ez-zatitu bat egiten lagunduz, denontzako oportunitateak hurbilduz, demokrazia benetan posible eginez eta gure gizartean aparteko poltsak egin ez daitezkeen bideratuz. Izan ere, integrazio sozialerako bide nagusia eskola da.

Bestalde, jakina da jendearen egoera sozio-ekonomiko eta kulturala hobetzeko ezagutza dela bidea eta eskola horren oinarriak jartzen dituena. Ezagutza horiek neurri handi batean hizkuntzan oinarritzen dira, hizkuntza baita ezagutza akademiko eta bestelakoan tresna, bizitza sozialerako lanabesa, lana topatzeko eta gizarteak dituen errekurtsoak jaso ahal izateko derrigorrezko pasaportea. Lan egitera etorritakoei bertako hizkuntzak ikastea funtsezkoa zaie gure artean duintasunez bizi ahal izateko, hemengo hiritar osoak bihurtzeko.

Ondoren doazen apunteak ez dira oinarri eta hausnarketa xume batzuk baino, egin beharreko bidean oinarrizko herri gutxi batzuk izan nahi izango luketenak.

Teoriaren argi ahula

Etorritakoa nola den ikusia eta onartua, zein harreman-sare duen bertakoekin ukipena izateko, zein den bere taldearen auto-irudia, zein heldu den lekuak itzultzen diona, zeintzuk diren bere integrazio nahiak eta zeintzuk integrazio hori lortzeko posibilitateak, denak dira eskolaratze ona baldintzatzen duten faktoreak. Sumatzen dut gure artean ere, horiexek direla nagusiak.

2Hren ikaskuntza ikasteko faktoreak analizatzen dituzten eredu teoriko guztiek alde afektiboari berebiziko garrantzia ematen diote: izan ere, entzuten dena barneratu ahal izateko oinarrizko baldintza iragazki afektiboa gutxitzea da, hau da, ikasi behar den hizkuntzaren munduari hurbildu nahi izatea edo behintzat haren aurrean defentsiban ez izatea. Zenbat eta iragazki hori baxuagoa, ikaskuntza errazagoa. Iragazki afektiboa eraiki eta hazi egiten da zenbait faktorek eraginda: estuasunak, auto-irudi txarrak, besteak ez onartuta sentituz, e.a.

Printzipioz eta era orokorrean, ume etorkinak zabal daude, gogotsu dira hizkuntzak ikasteko, bere bizitzeko posibilitateak horrekin lotuta baitaude. Arin ikasten dute



onartuak sentitzen diren bitartean. Zentzu honetan irakaslearen irudiak berebiziko garrantzia du: neurri handi batean bera baita gizarte berriaren ordezkaria eta gizarte horretan ikasleak izan dezakeen interpretatzaile eta laguntzaile fidagarria.

Afektibitateak bi alde ditu, alde pertsonala eta alde soziala, eta biek zerikusi estua dute ikasleak xede-hizkuntza errepresentatzen duen giza taldearekin duen harremana, harentzat duen interesa eta irudiarekin. Ez da arraroa plan berezirik egin ez den eskoletan isolatuta sentitzen dena, beste umeeekin ulertzerik ez duen berria, oihuka edota kolpeka hastea: agresibitatea bere ezinaren adierazlea, besterik ez da.

Akulturazio prozesuek tentsio emozional handiak sortarazten dituzte eta ikaslea bi mundu, bi ikusmira, bi balore sistema, bi jokabideen artean tirakatuta sentitzen da, hizkuntzarenganako amodio-gorrotoa bizi dituelarik aldiro. Beraz, hizkuntza ikastea kultura ikastea da, jokabide sozial batzuk ikastea. Jokabide horiek jatorrizkoetatik urrun edota kontrajarrita egon daitezke eta ondorioz horiek bereganatzea ez da sarritan gauza erraza ezta laua.

Jatorrizko hiztunekiko harremanen kantitatea eta kalitatea seinalatzen da beti bigarren hizkuntza bat ondo ikasteko eraginik gehien duen aldaera. Isolamendu sozialak ez du hizkuntzaren ikaskuntza posible egiten. Ghettoetan bizitzeak ez du harreman horiek eraikitzen. Zenbat eta isolatuago, hizkuntza eta elkarren arteko ulermena txarrago.

Lehen hizkuntzaren statusak badu zerikusirik bigarren hizkuntzaren ikaskuntzarekin eta akulturazio prozesuen gorabehera emozional eta sozialekin: norberaren identitatea markatzen duen hizkuntza arriskuan ez dagoenean, neurri handi batean identitatearen muina den hizkuntza ere, ez dago. Zentzu honetan, badirudi Ekialdeko Europatik edo Hego Amerikatik datozen hurrek problema gutxiago izango dutela Afrikatik datozenek baino. Hauetako askok hizkuntza ez internazionala edo idazten ez den bat daukate lehen hizkuntza. Itzala duena izan beharrea, hizkuntza minorizatu, ezezaguna edota ezonartua denean, norberaren izaera ere, horrela tratatua sentitzeko posibilitate asko dago. Izan ere, hizkuntza talde sozialari lotuta doakionez, norberaren taldea onartzen ez duten taldekideen hizkuntza ikasteak ere problemak izango ditu, nahiz eta kasu batzuetan beharrak eraginda ikasiko den, bestetan norberaren identitatea ukatu eta besteenarekin mimetizatu edota gorroto soziala gordez, inoiz harreman eskasak izan eta norberaren talde barrean isolatzera joko den. Zentzu honetan azpimarratzekoa da Afrikako kulturek hizkuntzen aurrean duten jarrera zabala: besteen hizkuntza ikastea oinarritzko heziketa onaren jokabidea kontsideratzen dute eta horren ondorioz, zabal



daude hizkuntzak ikasteko. Zabal... baldin eta besteen aldetik haiek eta beraien kulturak ere onartuak diren.

Harreman korapilatsuak eta kontraesankorrak dira giza taldeen artekoak. Guk ere zerbait dakigu horretaz : euskaldunok gutxiengoan dagoen eta sentitzen den taldea izanik, aldi berean gehiengo gara beste batzuentzat. Gure identitatea arriskuan sentitu eta aldi berean, gu gara besteen identitatea arriskuan jar dezakegunak. Defentsiban egon gaitzke defentsiban egon daitezkeen beste batzuen aurrean. Baina gutxiengoan izanik, poderearen parte bat dugu. Gure herrian gaude eta nahiz eta sarritan garena izateko eskubide praktikorik ez dugun, nahiz eta garenarengatik barkamena eskatu behar dugun maiz, edo agian horregatik, jokabide onena ofentsiban jartzea dugu, hau da, gurea zabaldu eta eskaintzea. Inorena ukatu gabe, hurbiltzeko eskua luzatu behar dugu gure jan-era zabalak besteenak ekarriko dituelakoan . Inork ezin diezaioke eskatu bizimodu duin bat izatea helburu duenari gure arrazoi sozio-politiko-linguistikoak uler ditzan, baina seguru dena da sekulan ez dituela ulertuko gure identitatearen kontrako ezer balu bezala ikusia bada. Tentazio arriskutsua da haur hauen etorrera gure eskubideen kontrako mehatxu gisa kontsideratzea, gure euskaraz egiteko eskubideari datorkion eraso edo kontsideratzea. Hori gauzak oker analizatzeaz gain, arrazismoari atea zabaltzea ere izan daiteke.

Nik uste dut neurri handi batean elkarren arteko ulermena posible egiteko giltza, elkarrenganako errespetua, guk daukagula. Galdera da giltza hori nola maneiatu hobekien.

Izan ere, banakaren identitate kulturalak bat baino gehiago izan daitezke, baldin eta elkarren artean aurrez-aurre kontrajartzen ez diren. Elebidunak nolabaiteko izaki bikoitza dauka; bi edo hiru kulturen artean dagoenak ere bai. Baina gizakiak, zoramenean bizi nahi ez baitu, koherentzia bilatu eta bere barnean sortzen diren tirabirak soluzio-atzeko joera du. Uko eginez definitzen diren gizarteak itxienak, zailenak, gatazka sortzeko aproposenak, jendea amorratua bizitzeko giro egiten dutenak dira. Gizarte zabalak ordea, erlatibismo esparru handi samarrak onartzen dituzte eta eurak dira pertenezia bikoitza edo anitza posible egiteko erosoan direnak.

Adinak eragina dauka hizkuntzak ikasteko orduan. Pentsamendu arruntak uste du lehen bai-lehen hasiz gero hobeto ikasten direla, baina denborak baino beste faktore batzuk garrantzi gehiago daukate'. Bestalde, goiz hasteari erraztasuna lotzen dio jendeak: pentsatzen du txikitzen hasiz gero erraz eta ahalegin berezirik gabe ikasten dutela



hurrek. Hau ere ez da guztiz egia. Umeentzako ere, zailak dira hizkuntzak, ez dira inolaz ere nagusientzako baino errazago. Hizkuntzak zailak dira ikasteko, edozein bigarren edo gainontzeko hizkuntza ondo menderatzeak luze irauten du. Are gehiago, hizkuntza eskolan bakarrik mintzatzen bada, ikastea askoz gehiago kostatzen da. Umeak ez dauka nagusi batek dituen esparru eta mundu berriak ezagutzeko posibilitatea: dagoen lekuan dago eta inguruak ematen dizkion ahalmenetatik bizi da, ez du elikatzeko beste iturririk. Ez dauka, nagusiek daukaten bezala, besteongandik input gehiago lortzeko mekanismorik: nagusi batek hizkuntza bat ikasi nahi duenean, elkarrizketan eta oro bar, harreman sozialetan duen honetan trebeziei esker, hizkuntza horren hiztunekin harremanak zabaltzea lor dezake. Zentzu honetan, ikasteko posibilitateak urteekin batera gehituz doaz. Nerabe inguruan potentzialitaterik handienak daude, kognitiboki ere handiak diren mementoarekin batera. Txikitandik hastearen abantaila fonetiko da, agian sintaktikoa ere bai, baina bere abantaila ikasteko denbora gehiago izatean datza batez ere. Goiz goizetik hasi direnak dira jatorrizko hiztunen erara mintzatzeko posibilitate gehien dutenak, baldin eta haien artean inturkulturalak dauden eta bitartean laguntza aproposak ematen zaizkion. Nerabe aldean datozen ikasleek ikastaro tinkoak ("Genesee(1983) argumentó que las técnicas de enseñanza individualizadas y basadas en la actividad pueden ser más efectivas que las técnicas tradicionales aplicadas por igual en toda la clase. También argumentó que la intensidad del aprendizaje de la lengua. por ejemplo. cuántas horas por día, es probable que sea más importante que la longitud del aprendizaje de la lengua (el número de años de aprendizaje de segunda lengua). Esto está conectado con el hallazgo de que los alumnos mayores tienden a aprender una segunda lengua con más rapidez que los jóvenes." (Colin Baker, 1998; Fundamentos de educación bilingüe y bilingüismo, Madrid Cátedra, pg. 250) beharko lituzkete hizkuntzaz jabetzeko. Ezin daiteke, zenbait kasutan gertatzen ari den bezala, gaztea edo umea klasean utzi, entzunez ikasiko duelakoan. "Belarria egitea" zerbait justifikatzeko esapidea da. Eskolan egon beharko dute, beste guztiekin batera, haientzako apropos prestatutako lanak eginez eta tutorearen begirada eta laguntza jasoz.

Cummins geroztik bigarren hizkuntzen irakaskuntzako bibliografian hizkuntzaren menderakuntzan bi plano bereizten dira: harreman sozialetarako hizkuntzaren menderakuntza eta zeregin akademikotarako behar dena. Biak erlazonaturik daude, baina batak ez du bestea automatikoki ekartzen. Hau da, pertsona batek hizkuntza bat mendera dezake elkarrizketa arruntak izateko moduan, eguneroko bizitzak eskatzen



dituen zereginetarako ederto moldatuz, baina hori ez zaio nahikoa ikasketak hizkuntza horretan aurrera eramateko. Izan ere, eskolako zereginei dagokienez, inguruan mintzaten den hizkuntza menderatzeko bost urtetik bederatzi urte artikoko epea behar dela kontsideratzen da. Pertsona horrek lehen hizkuntzan duen hizkuntza idatziarekiko harremanak eta haren menderakuntzak baldintzatuko dituzte bigarren hizkuntzan izango dituenak. Edozein hizkuntzatan idatziak pentsamendu mota bat eskatzen du: kontzeptualizaziorako aproposa, interpretaziorako teknika berezi batzuk, testuaren aurrean jokabide jakin batzuk, hiztegi berezi bat eta jokabide intelektual batzuk. Horietan trebatua denak lan erdia eginik dauka, baina horretan bigarren hizkuntzan aritu behar denak laguntza bereziak beharko ditu, luze. Are gehiago kultura ez letratu batetik badator, nekazarien umeei gertatzen zaien bezala.

Ikasleen alde aurretiko ezagutzak markatu egiten du ostean ikas dezaketen guztia. Izan ere, bai nagusiek eta bai umeei horixe daukagu elkarrekin: garenetik, bizi edota esperimintatu dugunetik, oro bar, dakigunetik abiatu behar garela mundua ulertzeko. Ume etorkinekin gertatzen den problema handi bat da eskolak sarri haiek ezer ez balekitez bezala jokatzeko duela: irakasleen lehenbiziko lana zer dakiten deskubritzea da. Zer bizimodu, esperientzia eta ezagutza daukaten, handik abiatzeko. Maiz, hau ez da oso erraza izango baina irakaslearen lana da ezagutza horietan deskubritzea, estimatzea eta beraietatik abiatzea ezer berrirakasteko orduan. Paisaiak eta hizkuntzak diferente izan dira, bizimodua ere bai, harreman sozialak ez dituzte guk bezalakoak, erritualak ere, diferente dira neurri handi baten, baloreak ere ez dira seguruenez kontsumismo eta kompetibitatearen kulturaren sartuta gaudenonak, baina hau deskubritzeaz gain, berdintasunak zabalak direla ere egiaztatuko dugu. Alde biek jokatuko beharko dugu hurbilketa pausuak emateko. Eta alde aurretiko baldintza da umearen mundua ezagutzeko ahaleginak egitea, baloratzea eta estimatzea, nahiz eta bat ez etorri bere gurasoen kultura parametro edo pentsamoldearekin.

Berdintasuna-diferentziaren arteko aldea eta tentsioa da ume hauek eskolaratzean eskola munduan sortzen dena. Berdintasunari ala diferentziari garrantzi gehiena emateak ondorio praktikoak du. Diferentzia markatzeak gabeziak markatzearekin identifika daitezke. Filosofikoki, berdintasunaren alde jo behar dela dirudi, hori bai, umeen arteko aldeak identifikatuz eta bereziki begiratu, beti ere, denon artean dauden berdintasunak nagusi kontsideratzen direla ziurtatuz.



Hizkuntzari dagokionez berdinak balira bezala tratatzea engainatzea da, bestalde: inork baino behar gehiago daukate. Baina ez dira "behar berezidun haurrak", edo behintzat ez orain arte kontzeptu hori eman zaion edukiarekin. Ume hauek ez dute atzerakuntza fisiko edo intelektualik, gure inguru soziokulturalaren ezagutza eza baizik. Ideia hau oso inportantea kontsideratzen dut, zailtasunen aurrean erraza baita "espezialaren" etiketa jartzea. Izan ere, dakidanez, eskola batzuetan psikologoek eskuetan utzi dituzte umeek, hizkuntza bat ez jakitea akats psikologikoa balitz bezala. Argi baino argiago izan behar dugu ume hauen beharrak oso normalak direla. Beraien egoeran zuk edo neuk izango genituzkeenak, hain zuzen. Hemengo umeen artean bezala, behar bereziak dituztenak ere, egongo dira, baina premia hauek detektatzean kontuz ibili beharko dugu, bereziki, kontuz ibili beharko dute laguntza psikologikoa ematen duten zerbitzuek, diagnostikoak zorroztu eta tresneria aproposa bilatu beharko dute hizkuntza eta kultura diferentetik etorri den umea ulertzeko, bere adaptazio beharrak atzerapenarekin ez identifikatzeko eta bere beharrak zeintzuk eta nolakoak diren ondo eta goiz asmatzeko. Oinarrizko jokaera kontsideratzen dut une hauek problema gisa ez sentiaraztea eta beste umeekin izaten diren jokabide pautak berberak aplikatzea: non behar duten laguntza, hartan erantzun, ez besterik.

Skuttnab-Kangas (1979) eta beste ikerle askoren arabera, etorkinen umeen eskolarraskastak zerikusitua dauka bajen Lehen Hizkuntzaren garapenarekin. Izan ere, lehen hizkuntza normaltasunez garatu duten haurrek hobeto menderatzen dute bigarren hizkuntza gurasoak haiekin heldu diren herriko hizkuntza egiten saiatu direnen umeek baino. Arrazoia begi-bistakoa da: azken hauen kasuan jaso duten hizkuntza-eredua eskasa izaten da, akatsez bete ez bada. Bigarren hizkuntza lehenaren gainean ezartzen denez, lehengoa ez bada ondo garatzen, erdilinguismoa ematen da, hau da, komunikaziorako eta pentsamendurako tresna den hizkuntzaren eskasia.

Ereduez eta bezeroez

Honaino oinarrizko ideiak, gure eskolek betetzen saiatu beharko lirakekeenak. Baina eskolen izaerak zerikusia du dema horri erantzun ahal izatearekin. Izan ere, E.A.E.ko eskoletako funtsezko antolaketak A, B eta D ereduak ditu izenak eta nahiz eta izen horien azpian dagoena ez den hasieran eman zitzaien edukia eta nahiz eta izen horiek ez duten lurralde eta leku guztietan eduki berdin-berdinak, horren posibilitatea.

A ereduak gizartearen bi muturrak hartzen ditu egun: alde batetik, zenbait eskola pribatuetan goiko klase pribilegiatu bat, zeinentzat euskarak ez duen interes handirik;



eta beste muturrean beheko klase bat, oro bar baztertutako jendez osatua -ijitoak, behar berezidun haurrak, etorkinak...- eta bertan errorik bakoa, zeinentzat euskarari dagokionez gure gizarteak idazteke dituen akordio edo helburu soziolinguistikoak guztiz ezezagunak edo beraien interesetatik kanpokoak diren.

Gipuzkoan ez dago honelakorik eta Bizkaian ere, Bilbo ondoraino joan behar da (Basauri) A eredu bat aurkitzeko.

A eredu bazterrekora doazen etorkinak ez dute euskara ikasiko: zorte onez, gaztelera akademikoaren oinarriak jasoko dituzte. Eskolan eta kanpoan bertakoekin harreman nahikorik ez badaukate, gaztelera arrunta, kolokiala ere ez dute oso ziurtatuta izango. Baina zorionez, ene iritziz, kanpotik etorritako umeek sarritan ez daukate eredu honetara joaterik, herri gehienetan ez baitago.

D eredu eta D-murgiltze eredu ditugu, askotan murgiltzen eta lehen hizkuntzan ikasten ari diren umeak gelan batera daudelarik. Hauek normalean, gaztelera 6, 8 edo 10 urterekin hasten dira ikasten, nahiz eta zenbait kasutan, herri euskaldun txikitian adibidez, arinago hasteko tendentzia ari den ikasten. Ene aburuz, gauza bera egin beharko litzateke etorkinekin: gaztelera ere, goiz hasi.

B ereduan, bestalde, normalean Hizkuntza arlotik kanpo matematika da gaztelera egiten den bakarra. Horrezaz gainera, eredu guztietan, ingelesa etorri da Haur Hezkuntzako eskola planteamendua goiz aldatzera. Baina etxekoa eskolako ez den hizkuntza bat -edo bi- daukaten haur etorri berriei eta eskolan aldi berean bi hizkuntza berri ikasten ari direnei, lehen momentuan ingelesa irakastea zentzugabekeria dela inork ez du dudatan jarriko. Haien premiak beste batzuk dira. Hemengo hizkuntzetan eroso sentitzen hasten direnean, orduan izango da momentua ikasten hasteko.

Guru irakaskuntza sistemak aldaketa asko izan ditu eta izaten ari da: adibidez, ereduaren irudi zurrunaren kontra, materiaren bat ingelesez ematen hasi dira hainbat ikastetxetan. Ingelesa menderatzea eskatzen duen egoera berriari erantzuteko aldaketa horiek beharrezkoak dirudite eta badirudi eskolek problema askorik gabe jakin izan duela moldatzen. Era berean, zenbait eskolek -D eta B eredutakoak- ikasle etorri berriari ateak zabaltzen eta haren beharrenei egokitzen jakin izan dute. Ikasle -bezero- berrien beharrianak aztertuta plan bat prestatu dute, imajinazioa eta malgutasuna erabiliz.

Ene ustez, egin beharreko aldaketak gehiago dira oraindik, klase diferentetakoak, beti ere presente izanik ikasle beharrian }kultural eta linguistikoei aurre egitea dela lehenbiziko zeregina. Honelako ikasle etorrera gero eta gehiago izango denez, harrera



planaz gain, komeni da hezkuntza eta hizkuntzaren planak ere sistematizatzen hastea, borondate onari baliabide tekniko eta estrategiko aproposak lotuz. Hirietan zailagoa da marginalizatutako eskolarik ez izatea: auzo jakin batzuetan elkartzen dira etorkinak normalean, eta baron taldekideekin batera joateko joera normala da, ulergarria².

Herrietan, ordea, integrazio lana posibleagoa dirudi. Bertako eskola kontzertatuek eta publikoek haien jokabidea moldatu beharko lukete problemari elkarren artean aurre eginez.

Zein eredu?

B eta D ereduak baino ez dauden zonaldeetan honelako haurrak eredu horietan sartzen dira. Ene iritziz, hori da onena, beti ere eskola haien beharrietara egokitzen saiatzen bada, euskararako eta gaztelarako laguntza ematen badie. Gaztelera nagusiki egiten den zonaldeetan ere, B antzerako bat iruditzen zait aproposa: bertan gaztelera kolokiala eta akademikoa eta euskara akademikoaren oinarriak behintzat ikasiko lituzkete. Agian honekin bazterketaren arriskua ez da soluzionatuko, baina herriko eskola arrunt batera joateak sozialki dakartzan abantailak integrazio soziala eta hizkuntzen ikaskuntzaren alde jokatzen du, dudarik gabe: ikuspuntu teoriko batetik behintzat, integratuago egonik, bertakoekin harreman estuago eta hizkuntza ikasteko oportunitate gehiago izango dituzte.

Baina horrelako egokitzapenek ereduak berplanteiamendua eskatzen dute. Izan ere, orain baino lehen Euskal Eskola Kontseiluak (i,?) aldaketa hau eskatua du. Aldaketarako arrazoi asko eman dira: berdintasun soziala bultzatzeko neurria, eredu horiek ez diotela errealitate banari erreferentzia egiten, A ereduak euskarari dagokionez lorpen nahikorik ez dela, curriculumak aldatuz doala, zentro bakoitza bere errealitateari egokitu behar zaiola... Ez dago dudarik orain arteko ereduak definizio estuegia daukatela, eredu zurrunezia suertatzen direla eta eskolak malgutasunez jokatu behar duela, beharren arabera zentroyen jokamoldea aldatuz. Beraz, berdefinizioak komenigarria dirudi.

Hona ekarri gaituen gaiaren arabera, momentu honek taldeak eta gelak elkartzeko malgutasuna eskatzen digu, materiak umearen arabera hizkuntza batez edo bestez ematea, talde osoarekin edo talde txikietan, klasean edo klasetik kanpo hizkuntza eta



eskolako edukiak garatzen lagunduko dien irakasle berezi bat izanik, ume berri hauei laguntzeko haur nagusi lider onak tutore izendatuz, beste umei hauekin mintzatzeko entrenatuz, ordutegi malguagoak eginik, proiektuka edota parte hartze maila eta eskakizun diferenteak posible egiten duten jokamolde pedagogikoak erabiliz, ea. Ene iritziz, besteak beste, baina nagusiki, pedagogia eta didaktika zehatzak dira zorroztu behar ditugun jokamoldeak. Agian eskola txikiek asko lagundu ziezaguketan talde ez uniformeak nola hobekien maneiatu erakutsiz.

Espezialista ala tutore?

Egiten dudan planteamenduaren giltza ez dago "irakasle espezialarengan", hizkuntzarako hain beharrezkoa den irakaslea, baizik eta gelako tutorearengan. Hizkuntzari dagokionez espezialistak oinarriak jarriko lituzke, laster –denbora ume bakoitzaren egoeraren arabera izanik - haren eskola-ordu espezifikoa beste ume guztiekin batera ikasgelan egiten direnekin lotzeko. Horretan tutoreak laguntza beharko du: ume hauei beharrezko diren laguntzak emateko hizkuntza irakaslearekin batera planifikatu beharko lituzke, eskolan beste batek bezala parte bar dezaten posible egiteko. Onar ezin daitekeena da umea klasean zereginik gabe izatea, ezer egiten eta dakien pertsona bezala tratatua, kasurik onenean errukiaz begiratuta, baina bere joera aldatzeko ezer egin gabe. Tutoreak jokabide tinko eta argia izan beharko du eta bere zeregina irakasle espezialistaren lanarekin egin. Umeak bi euskarri izango din) horrela: espezialistak gidatutako klase bereziak momentu batzuetan, klase arruntetan integratua, denbora gehienez.

Ume etorkinekin lan egingo duten irakasle espezializatuen artean koordinazioa derrigorrezkoa dirudi -honez gero badira batzuen artean hasiak- zereginak ez ugaltzeko eta materialak, esperientziak eta jokabiderik interesgarrienak zabaltzeko. Hezkuntza Sailak laguntza eman beharko lieke irakasle hauei lan horretan gidaritza aditua izateko eta egiten denari etekinik handienak atera ahal izateko: laguntza beharko dute hizkuntzaren irakaskuntzan oinarri pedagogiko aurreratuak erabiltzeko, edukiak aukeratzean irizpideak eraikitzeak, irakaskuntza estrategiak eta jokabide didaktiko emankorrenak aukeratzeko, materialak era duinez editatzeko, e.a.



Espezialista lanerako jarrera baikorra eta prestakuntza dira giltza, ene iritziz: sentsibilitate berezia duten irakasleek hartu beharko lukete ume hauen laguntzaren ardura, lan hau ezin baitzaio eman eskolara azkenean ailegatzen denari ezta gaia axola ez zaion bati. Alderantziz, behar-beharrezkoa dirudi horren ardura hartzen duen irakaslea iraunkorra izateak. Horrela ez balitz, gai honen trataera egokiari dagokionez, beti egongo ginateke puntu berean -edo hobeto esanda, atzerago-. Bestalde, umeen ikuspuntutik begiratuta, dudarik ez dago beraien erreferente argiak eta euskarri sendoak diren irakasle horiek eskolan jan-aditu beharko luketela. Esparru honetan bare on-egitea frogatu duten irakasle asko ordezekoak dira. Sarritan, umeak ezagutu eta haiekin lanean aurreratu ondoren, kurtso erdiak alde egin behar dute. Hau ezin dezakegu onartu ez dakit zein eskubide sindikalak gogoratu. irteera bat eman behar zaio honi. Borondatea egonez gero, ez dut uste oso zaila denik. Prestakuntza berezi baten ondoren jendea preparatzeak badirudi irtenbide bat, baina seguruenez beste batzuk ere egongo dira. Sindikatuek badugu zertan burua nekatu, gai serio honi irtenbide bat bilatzeko. Eskolak gauzak ondo egiteko interesa eta baliabide nahikorik baditu, irakaskuntza maila ona lor dezake kasu gehienetan egokitzapen aproposak eginez.

Prestakuntza ere, derrigorrezkoa dirudi, borondatea ez baita dena. Zer eta nola irakatsi jakiteko prestakuntza behar da. Zenbat eta hizkuntzez eta kulturez irakasle espezialistak gehiago jakin, hobeto. Kultura diferenteetako umeak ulertzeko eta ulertarazteko teknikak eta haien komunikazio gaitasuna garatzeko metodoak eta irakaskuntza estrategia, ezagutza eta errekurtsio asko sortzen eta arakutzen jakin beharko ditu. Aholkuak eman beharko dizkio tutoreari, ume bakoitzaren nondik norakoa luze jarraitu beharko du, hobetze bideak proposatuz. Prestakuntza eskasarekin hori ez da posible. Benetan gai honek arduratzen badigu hor lehentasuna man behar zaiola uste dut.

Zehazten

Lan guzti hau aurrera eramateko zenbait jokabidek behar-beharrezkoak iruditzen zaizkit:

1. Klaustro osoa inplikatu behar da. Asuntua eskola osokoa baita, ez irakasle bat edo bestearena. Harrera-pertsonak izan beharko dira eskola bakoitzean, ahal dela boluntarioak eta iraunkorrak, bezero berrien egoerari erantzuteko eta bertakoekiko



harremanak ahalik eta hobekien bideratzeko, lan konplexu horretarako alde zurekin prestatuz.

2. Irakasle guztiak sentzibiltate interkulturalaren oinarriko prestakuntza jasotzeko behar du, urte guztian elkarren arteko ulermena eta begirunea eskolan landu eta etorritako urteekin erlazioan dauden parametroak eguneroko eskola edukietan sartu. Urte galdua eta arrotz ez sentitzeko irakasleek gauza asko egin dezakete: bere izena ondo ikasiz gain, gelaz kanpoko egoera desberdinetan laguntza eman diezaiokete, baina batez ere, beste urtean laguntza eta hurbiltasun jorak garatu, bai gelan eta baita jolastokian.

3. Ziurtatu ikasle berriek bai euskara eta bai gaztelera ikasiko dutela. Adina eta ingurunea kontutan edukirik, lehentasuna eman bizitzeko beharrezkoen egiten zaion hizkuntzari, beti ere hizkuntza biak menderatzeko bidean lagunduz. Hizkuntzak eskolako edukiekin batera landu, ez objektu, baizik eta ikasteko gai guztien bide gisa.

4. Hizkuntzak ikasteko irakaskuntza-denbora inportantea da, baina horretan baino gehiago irakaskuntzaren arrakasta metodologian dago: irakasle espezialistak prestatu behar dira, boluntarioak eta kontrako irakaskuntza dutenak ahal dela, bereziki bigarren hizkuntzan laguntza emateko gaitu, metodologia eta iraka-estrategiak ikasiz.

5. Zonaldeka edo, hizkuntza irakasteko materiala prestatzeko irakasleok taldeak osatu behar dituzte, bai euskara eta bai gaztelera irakastekoa, oinarriko faseak betetzeko behintzat. Idatzizko eta ikusi-entzuteko materiala bildu (eta behar bada, sortu) behar dituzte, beti ere sentzibiltate kultural handiz. Metodologia bateratu behar dituzte, behar bada, adituen laguntzarekin.

6. Curriculumean bertako ez diren urtean kulturaren ezaugarriak sartu, ez bakarrik etorritako urteentzat, baizik eta denok ikasteko. Haien bereziki ezagutzen dituzten edo ezagutu dituzketen gaiak nabarmendu. Ikuspegi kultural diferenteen aniztasunaz kontziente izanik, antzekotasunak eta diferentziak adierazi, konpartitu, erlatibizatu.

7. Klasearen antolaketak berebiziko garrantzia handia du irakaskuntzan. Bazterketa ekiditeak eskolako helburua izan behar du. Aparteko klaseaz gain, irakaskuntza normala aurrera eramateko elkarketa malguak egin: malguki jokatu klase eta taldearen barnean. Elkarriketan oinarritutako irakaskuntza irakaskuntza bultzatu: proiektuak eta zentzu horizontalean jokatzen duten irakaskuntza motak sustatu, klase magistraletatik alde egin. Esperientzian oinarritutako irakaskuntzari eta komunikatzeko gaitasunen garapenera lehentasuna eman.



8. Bertako umeekiko harremanak bultzatu eta zaindu. Lankideen arteko laguntza sortarazi. Talde elkarketak eta trukaketak antolatu Hasieran, laguntzaile eta babesle edo gida izango zaizkien ikasle nagusiagoak —ahal dela liderrak-"tutore" izendatu beste kulturatakoei laguntzeko.

9. Umeen ama hizkuntza bultzatu, gurasoei hartaz hitz egin diezaieten eskatuz eta eskolaz kanpoko orduetan behintzat haren klaseak posible eginez³. Gurasoen harremanak errazteko erabiltzeaz gain, hizkuntza horretako testuak eskolako leku publikoetan jarri, haien ezagutzaz interesatuz eta umeak interesaraziz. Beraien arau sozialak eta erlijiosoak kontutan izan.

10. Urteetan zehar euskara eta erdararen hizkuntza-laguntza ziurtatu.

Amaitzeko, oso beharrezkoa iruditzen zait orain arte bildu den esperientzia batzeko jardunaldi batzuk antolatzea, non lan egin dutenek beren segurantzak, dudak, egite moduak eta demak elkarren artean jarriko lituzketen.

Orain arte egin ditudan burutazioak gutxi batzuk baino ez direla kontziente naiz. Ezezagutza handiak ditut, baina hemendik hasteak galdera berriak eta jorratu beharreko bideak erakutsiko lizkigukeela uste dut. Denok artean eraiki behar dugun etorkizunak ahalegin sendoa eskatzen digu. Badugu zeregina.

2001-eko azaroaren 28a